

## DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIEN SAREA. Maileguen araudia (2018ko urtarrila)

Herritar guztiek har ditzakete maileguen doan, Donostiako Udal Liburutegien Sarea osatzen duten liburutegietako materialak.

Euskadiko Liburutegiei buruzko Legeak zuzentzen du Donostiako Udal Liburutegien Sarea.

### LIBURUTEGIKO TXARTELA

Maileguaz baliatzeko Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko erabiltzaile-txartela aurkeztu behar da.

Txartela eskuratzeko honako hauek aurkeztu behar dira:

14 urtetik gorakoek:

- Eskaera-orria beteta
- NAN edo pasaportea

14 urtetik beherakoek:

- Eskaera-orria beteta, aitak, amak edo tutoreak izenpetuta

### ZER HAR DAITEKE MAILEGUAN?

Erabiltzaileak gehienez eta guztira 20 dokumentu hartu ahal izango ditu maileguan Donostiako Udal Liburutegien Sareko liburutegietatik edo/eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Saretik.

	Liburua	Umeentzako liburuak	CD	CDROM	Bideojokoa	DVD	Mapa	Partitura	Aldizkaria	Ereader
Donostiako Udal Liburutegien Sarea	5	5	3	3	1	3	1	5	5	1
Mailegu egunak	21	21	21	21	21	21	21	21	21	21
Zenbatetan berrituak	2	2	2	2	0	2	2	2	2	0
Erreserbak	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea	8	8	8	8	2	8	3	8	8	1

12245n1

Erabiltzaileak bere gain hartuko du maileguan hartutako materialen erantzukizuna; urratu edo galduz gero, erabiltzaileak ordezkoa erosi beharko du eta, salgai ez dagoen materiala bada, ordaindu egin beharko du.

Materialak erabiltzailearen beraren erabilerarako izango dira, ez beste ezertarako; hortaz, debekatuta dago jendaurrean erakustea eta kopiak egitea. Erabiltzaileak jabetza intelektualari buruzko legediaren aurka ez joateko konpromisoa hartzen du.

Luzapenak epearen barruan eskatu behar dira eta materialak ez du erreserbarik eduki behar. Luzapenak egin daitezke: internet-en bidez <http://katalogoa.donostiakultura.eus> telefonoz edo liburutegian bertan.

Maileguan dauden dokumentuak besterik ez dira erreserbatuko. Erreserbak egin daitezke: Internet-en bidez <http://katalogoa.donostiakultura.eus> telefonoz edo liburutegian. Erabiltzaile batek 3 erreserba egiteko aukera izango du.

## ITZULTZEA

Materiala itzultzeko epea bete ezean, liburutegiko bazkide izatea galaraziko zaizu denboraldi batez. Zigorrak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sare osoan izango du eragina.

- Egun bateko atzerapena, egun bateko zigorra dokumentuko.
- 50 egun baino gehiagoko atzerapenagatik, txartela kenduko zaio dokumentua itzuli arte eta sei hilabetez mailegurik gabe geratuko da.
- Ez da erreserbarik egingo isuna dagoen bitartean.

Materiala posta ziurtatuaren bidez itzul daiteke. Materiala itzultzeko postak eskaintzen dituen beste moduetako bat erabili eta materialen paketea galduz gero, erabiltzaileak berriak erosi beharko ditu.

## ERABILTZAILE BEREZIAK

Erakundeek, elkarteek, eta abar taldeko txartela eduki ahal izango dute; horretarako, erakunde edo elkarte direla egiaztatu -zuzendariak, presidentek edo ordezkariak sinatutako agiriaren bidez- eta sinatzailearen NANA aurkeztu behar dute.

## E-LIBURUTEGIA: MAILEGU DIGITALA

E-Liburutegia eLiburutegia Internet bidez liburu elektronikoak eta filmak eta ikus-entzunezkoak mailegatzeko zerbitzua da. Zerbitzu horretara sartzeko gogoratu helbide elektronikoa hau: [www.eliburutegia.euskadi.eus](http://www.eliburutegia.euskadi.eus)

Liburutegiko beste zerbitzuetara sartzeko erabiltzen diren datu berdinak sartzearekin nahikoa da.

- Erabiltzaile batek gehienez 4 liburu hartu ahalko ditu maileguan aldi berean. Maileguen iraupena 21 egunekoa izango da.
- Horretaz gain, astero bi film hartu daitezke maileguan, eta behin bata hartuta nahi haina aldiz ikusteko 72 orduko epea dago. Kasu batzuetan, banatzailearen arabera, epe hori 48 ordukoa izan daiteke
- Erabiltzaile batek 2 erreserba egiteko aukera izango du.
- Mailegatutako liburua eskuragarri egon daiteke 6 gailutan eta 6 ordenagailutan aldi berean.